



Biltzarra

Ekologia
Langabetuak
Emakumeak



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 20127

komunikazioak
КОМУНИКАЦІОАК

EKOLOGIA

EKOLOGIAREN KRISIA

Gaur egun populazioaren hazkundeak Lur planeta ilundu egiten du 5.000 milioi baino gara, eta era minimo batean enplegatuko, elikatzeko, etxebizitza emateko eta hezitzeko ez gara gai. Okerrago oraindik, aurrikusten denez, XXII mendearen haserarako 10.000 milioi izatera iritsiko da gutxienez.

Gizaki kopuruan bakarrik ez datza arazoa. Konsumismoaren leherketa ere hor datza. Ekosistema planetarioari neurritz kanpoko presio bat ezartzen diote 2.000 milioi gizakiek daramaten bizimoduak. Gero eta lurraren baliabide gehiago erabili eta hondatzen diren -bai agortu ere- lorpen teknologikoen zabalkuntzak neurritz kanpo bultzatzen du kontsumismo honek: "Populazio krisi edo baliabide krisi baten" aurrean baino krisi orohar bakar baten aurrean gaude: gizateriaren krisia. Itzala gure guztion gainean jartzten dugu eta denon bizitza itzalduko du.

Lur gogorrean inoiz erabili ez diren lurrak goldatzen ditugu, nahiz gehienez -edo onean- kalitate eskasekoak izan. Lurrak, gurre baliabiderik preziatuena, urtean milioika tona urak edo haizeak eramaten ditu. Tragedia hau hareagotzeko, urtetik urtera, laborantza lur zabalera handiak "urbanizatu" egiten dire. Basamortuak handitzen doaz, datozen 75 urteetan laborantza lurretatik heren bat mehatxatuz. Datorren mendearen errialderako ezer gutxi gelditu den alaitasunez mozten dire tropikoetan basoak. Basoak kentzean, milioika moetak bere ingurua galtzen du eta asko betirako galtzen dire.

Ozeanoetan arrantzaleku bat bestaren ondoren hondatzen ari gara. Hizurde, foka eta beste itsas mamiferoak baleen bide bera hartu arazten diegu. Itsasoak bezelaxe pozoitzen ditugu lakuak eta munduko hibaiak. Zeruak zabortegei bat bezala erabiltzen ditugu, eta gure paisajeak zaborrez, zati bat toxikoak, profanatzen ditugu. Mundu guztiko laborantzari datxekion klima aldaketak eraginaz karbonoaren dioxidoaren oreka aldatzen dugu atmosferan.

Lurraren sistemen gainexplotazio honek beste moetetako katastrofeak dakartzki. Galtze prozesuan dauden gero eta baliabide gehiagoren bila gero eta pertsona gehiago egotean gatazkak sortzen dire: munduko Bigarren Gerratean historia guztian baino jende gehiago hiltzen. Dena den, gure giza sistemen desegitean, gure estruktura ekonomikoetan eta gure estruktura politikoetan aurkitzen da mehatxurik handienetakoa. Lur planeta estaltzen duen itzala, perretziko atomiko batek luzatuko duen egunean egingo baino handiago eta sakonagoa ez da izango.

GESTIO BERRIA, TRANSIZIO HANDIA

Aurretik izan dugun beste edozein gizarteari eskatu zaion maila gainditzen duen egite kreatiboaren aukerari aurre egiten gizaldi pribilegiatu bat gara. Naturatik aldendu eta gero, berriro beranren zati bat izatera itzulo behar dugu: tregoa, hitzarmena eta errekontziliazioa. "Homo sapiens" baliabideekin erasokor, ugalkor eta zeken izatetik aitzindari moeta bat, ekologik mugak ezagutzen dituen, harrokeria elkarkidetzan aldatzen duen eta autoerregulazioa urrezko puntua bezala adierazten duen aitzindari moeta, klimax moeta izatera pasa behar du. Gure biosfera salbatuaz eta gu geu, benetako gizakiak izatera bihurtu gaitzeko.

EUSTSI DAITEKEN GESTIOA

Gizadiaren abenturaren zeharo aro berri batean sartzen ari gara. Biharkoaz ezer pentatu gabe lurte bortxatu beharrean, oinarri euskor batean zaindu eta erabili behar dugu. Hau da egin behar dugun transizio handia eta gizadiaren historian antzekorik ez duen neurriko gestio jarduera eskatuko du. Giza sistema bezala kapitalismoaren ezabatzea suposatu behar du honek.

Hazkunde ero batetik gestio eutsi batera igaro gindezkeen aurretik, ezinbestekoa da gure giza eta natur baliabideen ahalmen produktiboak neurtzea. Gaur egun, ingurune aldatetaren gure obserbazio, neurri eta kontrol ahalmena arrunt desegokia da. Gure ekintzen azken ondorioak jakin gabe, ezinbesteko baliabide planetarioak ezabatzen ari gara. Ironiaz, baliabide produktibo hauek neurtzeko beharrezko esperientzia baldin badugu eta, elkar ulertzeko beharrezko ahalmena badago, hala nola planetaren gestio eraginkor bat gure esku jartzeko sustraitik aldatu beharko duen marko instituzional zenbait.

Beharbada, gure transiziorik zurrunbilotsuena orekatasuna jartzea izango da -gure natur ingurunearen gestio eutsi baterako transizioak arrakasta izateko oinarri bakarra-. Zu eta ni, Iparra eta Hegoa, gu edo haiek baino hareago joan behar dugu -gatazken hizkuntza-; berdintasunez elkarbanatuz geroz planetak denontzako nahiko baliabideak baitaizka.

Transizioa ezinetik urrun dago. Populazioaren tunelaren azkenean argi izpi batzuk ikus daitezke.

GESTIO BERRI, TRANSIZIO HANDIA

LAB LANGABETUAKen

JAKINARAZPENA

IV. BILTZARRARI

Ekonomia mundu mailako fenomenoa bihurtzeko politika Neoliberalaren ondorio diren sozietatearen bikoizketa eta langilegoa kolektibo desberdinetan banatua izatearen aurrean, LABek Sindikatua errealitate berri honi egokitu beharra planteatu zuen, bai teoriarik eta bai praktikan ere eraginkorki aurre egin ahal izateko. Honetarako ezinbestekoa zen egituraren egokitzapena.

Irizpide hauekin jaio zen, duela urte eta erdi, LAB-LANGABETUAK, ez, hainbat sindikatutan egin ohi duten legez, kabinete teknikoa sortzeko, bere gertakuntza, garapen teorikoa eta plangintza behinbehinekotasuna eta lanik eza pairatzen duten lagunek burutu zuten. Hasiera batean, langabe talde txiki bati itxaropena sortu zigun proiektuak eta geneiken ondoen ekin genion lanari.

Hile hauetan esparru askotan garatu dugu lana, gure errebindikazio eta helburuak hizaldien, aparteko lanorduen eta ALEen kontrako pikteteen, aisialdi ekintzen, orrikkak banatzearen, kartelak itsastearen eta, maiz Sindikatuen beste Arlo batzuek laguntzeko edo arazo berberak dituzten beste kolektibo batzuekin (gazteak, emakumeak...) elkarlanean, mobilizazioen bitartez Sindikatuaren baitan eta kanpoan hedatzera bereziki zuzendutakoa.

Ektaldi hauek guztiauek, behinbehinekotasuna eta langabeziaren kontra eta aberastasunaren eta lanaren banaketaren alde izateari dagokionez erreferentzialtasun eta sinesgarritasun handia eman diote gure Arloari eta, ondorioz, Sindikatoari.

Hasieran gure buruari ipinitako helburuetako bat taldeak euren ezaugarriengatik aproposak ziren herri eta auzo guztietan ezartzea izan zen. Herri mailako egituraketaren oinarrian honela errealitate desberdinetatik gertuago izan gaitezkeela dago eta, beraz, hobeto eragin dezakegula euregan: gure mezuak arrazoi bat edo beste dela medio sindikal gintzatik aldentuta dauden herritarrei helarazten dizkiegun bitartean, helburu dugun SINDIKATU SOZIO-POLITIKOA praktikan garatzen dugu.

Baliabide guztiak eta irudimenak ematen diguna erabili ditugun arren, geldiune nabarian gaude militante kopuruaren hazkundeari dagokionez, hasierako nukleoa ezin gaindituta.

Egoera honek ez gaitu harritzen; 96ko apirilko gure Asanblada Orokorrean arrazoi desberdinak nabaritzen genituen Sindikatutik kanpoko esparruetatik gure Arlora militanteak erakartzeko zailtasun handiak izateko.

Zalantza barik, lagundu egin bide dugu, gure akats eta ezezagutzeekin, geldiune honetan izan gaitezkeen baina, salbuespen prestuak salbu, Sindikatuaren egituren, eskuorde eta afiliatuen jarrera Alor honekiko, gehienetan, epela izan da, hotza izan ez denean. Lan egiteko eran gertatzen diren inertzien eta proiektu berriek eragiten dituzten ezulertzeen jakitun gauden baina inork ezin erabil dezake, burutu dugun agitazio kanpaina handiaren ondoren eta Sindikatuaren Zuzendaritzak gaiari buruz idatzi dituen boletín eta prentsa-oharren ondoren, gure lana eza gutzen ez zuelako aitzakia.

Ezinbestekotzat daukagu, gure lanean gutxieneko arrakasta-aukera izateko, Euskal herri osoan zehar ezartzea Taldeak, Honetarako, Sindikatu honetako emakume eta gizon guz-tien konpromezua behar dugu. Alorra sendotzeko, porrot egin duen beste egitasmu batean ge-ra ez dadin. Langabetuen borroka egoki eta zuzena da; inork ez du egoera hau eraldatzeko guk baino hobeto borrokatuko eta, oraingo honetan, LABen antolatuta dihardugu.

Ezer gutxiariko balio izango digu Biltzar honetan behinbehinekotasunaren eta langa-beziaren kontrako borrokari dagozkion gidalerroak onartzea, gero praktikara eramateko gai ez bagara. Badakigu gaitza dena lantegitik kalerako jauzia ematea, baina ez dizuegu elkarta-suna eskatzen: LABen baita langileen arteko senidetasun-ondasuntza nahikoa dagoela uste dugu, denon artean Euskal Herri igualitario, sozialista eta independentea eraikitzeko bideari ekin diezaigun.

Egiturak kanpainak eta epe labur eta ertaineko helburuak planifikatuz; ordezkariek eta afiliatuak kontratazioak kontrolatuz eta talde-negoziazioan borrokatuz eta geu geure alorrean, denok elkarrekin borrokatuz, guretzako gura duten bazterketa eta babesgabetasun egoera-ren kontra borrokatu ahal izango dugu, geure esku izan arte ermain hau desagertarazteko be-harrezkoak diren bitarteko politikoak.

Ekin diezaigun lanari, egiteko ordua da eta,

GORALABI!!

EUSKAL EMAKUME LANGILEON EGOERA SINDIKATUAN

1. SARRERA

LABek burututako Kongresuan emakume langileen zapalkuntzaz jabetu eta berau gainditzeko konpromezua hartu zuen, halere, ez da aurrerapausu handirik eman.

Konpromezu hura gauzatzeko bidean Emakume Area sortzea erabaki zen, baina ez zen/da berau zertzeko baliabiderik jarri eta, ondorioz, osatu barik, egitasmoa izaten darrai. Horren ordez, emakume batzu aritu dira lanean arlo horretan borondatez eta bitartekorik gabe.

Are gehiago, sindikatuak beraien lana erraztu eta bideratu beharrean alboratu eta ez du kontutan hartu. Hau dela eta, ohiko jarrera eta ekinbide sexistek, salbuespenak salbu, nagusi izaten jarraitu dute sindikatuaren barne funtzionamenduan zein iharduera sindikalean.

Kontestu honetan ulertu behar dira zuen aurrean aurkezturiko

- "Emakumeak" eztabaidarako proposamena
- "Ekintza Sindikala" zein "Antolakuntza" ponentziei egindako emendakinak, eta
- gogoeta labor hau

2. EGUNGO EGOERA LAB-EN

2.1 EGITURA

Egituran isladatzen da grafikoki sindikatuak Emakume Areari egokitzen dion proiektzio partziala eta murrizta. Zail samar suertatzen da planteamendu estu hau bat etortzea osotasun eta globaltasun oinarriak dituen sindikal iharduera orekatzaile batekin.

Halaber, ez da bitarteko zuzentzailerik azaltzen emakumeen partehartzea eta interbentzioa bermatzeko egitura ezberdinetan.

Ierarkia eta botere guneen osaketa aztertzeke daude sindikatuak, ardura ezberdinekin batera, autokritika eta alternatibak sakon eta sendoak bideratzeko.

Egituraketa honek ez du baldintzarik eskeintzen egungo barne funtzionamendu sexistak -harremanak, partehartzea, ordezkatza, bereizkeria...-gainditzeko. Are txarrago, neurri zuzentzaileak ahalbideratzen ez diren bitartean berau iraua eta birsortu egingo du.

2.2 SINDIKALGINTZA EREDUA

Egitura sindikalgintzaren ereduaren ondorio bat baino ez da. Hori dela eta, gogorrena zera da: emakume langileok ez gara existitzen, ez hausnarketa teorioetan, ez iharduera sindikalean, ezta antolakuntzan ere.

Garelako gaude, baina ez ofizialki. Hauxe da, gure ustez, aipamenik latzena.

Izan ere, gizon langileen behar eta interesen arabera burutu eta garatzen da LABen iharduera sindikala, ez langile guztion alde.

Bestelakoa esan nahi genuke, baina horrela da eta begiak ixteak ez digu inolako mesederik egingo.

Hau honela delarik, kontraesankorra da LABeko diskurtsoa eta beronen garapena:

-Euskal Herrian gizarte eredu solidario eta berdintzailearen alde borrokatzen du, baina sektorerik zapalduenak pairatzen duen bazterkeria legitimatzen du, eta

-euskal langileen alde diharduen arren langilegoaren zati oso bat, bere sexuagatik bazterten du.

Baikorrago agertu nahi genuke, baina gaur egun LABek ontzat ematen du emakume langileen zapalkuntza bermatzen duen sexuaren araberako lan banaketa, gizartearen bereizkeria sexista birsortuz.

3. SINDIKALGINTZA ERALDATU

Eredu ekonomiko kapitalistak ezartzen dizkigun muga estuetatik at jo beharra dugu; Euskal Herria eredu sozioekonomiko elkarlide baten bitartez eraiki, eta pertsona zein giza talde guztioi arlo guztietan aukera berdinak eskeini -pribilegiarik gabe- beren gaitasunak gartzeko ahalmena izan dezaten.

Bide honetan, aldarrikatzen duen sindikalgintza soziopolitikoarekin bat egin behar du LABek eta berau garatu, itxura eta hitzen garaia gaindituz.

Emakume langileen zapalketaren aurrean, honako puntu hauek izan daitezke lehentasunezkoak.

- 3.1. Euskal Herriko lan mundua orohar uler dezagun emakumeok betetzen dugun lanari dagozkion garrantzia zein balorazioa eman, errealitatearen azterketa zuzena egiteko eta sirtenbideetan ez galtzeko.
- 3.2. Lan mundua bere osotasunean hartu. Horretarako,
 - sexuaren araberako lan banaketa agerian utzi eta gainditu
 - etxeko lanaren garrantziaz jabetu, lan munduan sartuz
 - lan merkatu ofizialetik at betetzen den lana kontutan izan, lan murgildua eta antzekoak, alegia.
- 3.3. Langile guztien askapenerako aurrerapausuak bermatu. Horretarako ezinbesteko da langile erreferentzia egokitzea, hots emakume eta gizon langilea erabiltzea; egungoa -gizon langilearena- emakumeekiko faltsu eta zapaltzailea baita.
- 3.4. Iharduera sindikala eraldatu, emakume langileen berezitasunak kontuan izanik eta sexismoa gainditzeko bideak jorratuz.

Irtenbideak proposatzerakoan, emakume eta gizon langileen behar eta interes ezberdinak agerian utzi, kontrajarriak gerta ez daitezelako.

LABek ezin dio gai honi bizkarra eman, ezin du euskal emakume langileen zapalkuntza onartu eta legitimatu. Koherente izan behar du aldarrikatzen dituen sindikaldintza eta nazio eraikitze proiektuarekin.

Bide honi ekiteko neurri zuzentzaileak hartzea eta bideratzea ezinbestekoa da. Ez da erraza izango, aitzaki asko entzuten baitira sindikatuan lortutako pribilegioak babetzeko edota ezintasunak estaltzeko. Bitartean, euskal emakume langile askok biziraupenean jarri behar dute lehentasuna bere partehartze soziala, militantzia zein egoera pertsonala bigarren postuan utziz.

4. ONDORIO GISA

Azken kongresuan eta azken urte hauetan maiz aipatu dugun bezala, neurri zuzentzaile-bideratzaileak hartu behar dira sindikatuan, bitartekoak jarriz, bestela hitz antzuak berriro ere.

Area tresna egokia izan daiteke, baina ez gaia txokoratzeko. Aldiz, errotik aldatu behar da barne zein kanpoko iharduera sindikala, emakumeon partehartze parekidea bultzatuz, erabakigunetan emakumeon interbentzioa bermatuz, gaiarekiko kontzientzia landuz, jarrerajokabide sexistak gaitzetsiz...

Guztionean eta norberaren lana da aldaketa hau geureganatzea eta gure iharduera sindikalean zein eguneroko bizitzan garatzea.

Honako aldaketa honek zabalduko digu bidea "Emakumeak" eztabaidarako proposamenean aipatzen diren hausnarketetan, lanildoetan eta irtenbideetan aurrerapausuak emateko.

